



International Festival
of Documentary
and Short Film of Bilbao

Bilboko Dokumentalen
eta Film Laburren
Nazioarteko Jaialdia

Festival Internacional
de Cine Documental
y Cortometraje de Bilbao

62 Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia ARAUDIA

SAIL OFIZIALA-FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzaren (ICAA) laguntzaz, BILBOKO DOKUMENTALEN ETA FILM LABURREN NAZIOARTEKO 62. JAIALDIA (ZINEBI) burutu nahi du.

1. BILBOKO DOKUMENTALEN ETA FILM LABURREN NAZIOARTEKO 62. JAIALDIA 2020ko azaroaren 13tik azaroaren 20ra Bilbon ospatuko da.

2. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioaren (FIAPF) aintzatespena du nazioarteko lehiaketa gisa. Araudi honetako artikulua bat datoz FIAPFk 2020. urterako emandako Nazioarteko Araudiko xedapenekin.

BALDINTZAK

3. Honako hauek baino ez dute parte hartuko sail ofizial honetan:

- a) 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera egin diren film laburrak.
- b) Lehiaketarako hiru kategoria daude: fikzioa, dokumentala eta animazioa.

4. EAEn ekoiztako film laburrek (fikzioa, dokumentala eta animazioa) Nazioarteko Lehiaketa-Atal Ofizialean parte hartu nahi izanez gero, Estatuan estreinaldiak izan beharko dute ZINEBI 62. edizioan. Estatuan ZINEBI 62 aurretik estreinatutakoek, Bertoko Begiradak-Film Laburrak atalean baino ezingo dute parte hartu.

5. Gehienez ere, 30 minutuko iraupena izango dute Nazioarteko Lehiaketa-Atal Ofizialeko film laburrek.

6. Gehienez ere, Nazioarteko Lehiaketa-Atal Ofizialen emanaldien iraupena 6 ordukoa izan beharko da eguneko.

7. Jaialdiak, bere hautaketa prozesuan, pelikulek munduko, nazioarteko, Europako edo Estatuko estreinaldia ZINEBIN izatea lehenetsiko ditu.

8. Jaialdiak onartuko dituen film labur guztiak, Aukeraketa Batzordeak ikusi beharko ditu erabaki baino lehen. Zuzendaritzak berakizendatuko du Aukeraketa Batzordea, eta Nazioarteko Lehiaketa-Atal Ofizialeko film laburren aukeraketan aholkatu eta lagunduko du. Aukeraketarenazken erabakiaren erantzukizuna jaialdiaren zuzendaritzak izango du.

IZEN-EMATEAK

9. Ekoizleek eurek edo euren legezko ordezkariak emango dute film laburren izena.

10. Honako hau aurkeztu beharko da izena ematean; izena emateko orria eta ekoizleak gehitu nahi duen informazio egokia. Testuak euskeraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi behar dira.

11. Hautaketarako Festhome plataformara bidalitakoak onartuko dira soilik (www.festhome.com).

12. Izen-emateko epea 2020ko uztailaren 15ean bukatuko da.

PROIEKZIO FORMATUA

13. Jendaurrean emateko film laburrak koderik gabeko DCP formatuan soilik onartuko dira. Beste formatuak, ordea, kontuan hartuko dira ere.

14. Jendaurrean erakusteko, pelikulek ingelesezko azpтитuluak eduki beharko dituzte.

15. Material hau errebisatuko da eta disko gogorretan bilduko da jaialdiko areto desberdinetan eskeintzeko.

16. Disko gogorrek jaialdiko artxiboetan geratuko dira eta ez dira inolaz ere erabiliko beste eskaintzetarako zinema zuzendariek kontrakoa esaten ez badute eta baimena sinatzen badute. Disko gogorren babespena FIAPF eta zinemateken arteko hitzarmenaren araudiarean egingo da.

17. Film laburren kopiak jaialdiko posta helbidera bidaliko dira: Ensantxe Eraikina 11- 1engo solairua 48009 Bilbo, Bizkaia (Espainia).

18. Jaialdiko seguru etxeak kopiak bulegora heltzen direnetik itzulera momentu arte aseguratuko ditu.

19. Jaialdia amaitutakoan, jendaurrean erakusteko materialak bidaltzailearen helbidera bidalikoak izango dira. Kopien helduera gastuak lehiakideak ordainduko ditu eta itzulera bidalketa berriz ZINEBIK.

NAZIOARTEKO EPAIMAHAIA ETA SARIAK

20. Jaialdiko zuzendaritzak izendatutako Nazioarteko Epaimahaiak sariak erabakiko ditu. Nazioarteko Epaimahaiko kideen kopurua ezin izango da bostetik beherakoa eta beti bakoitia izan behar da. Dena dela, espainiarrak %40 izango dira gehienez ere. Jaialdiko zuzendaritzak idazkaria izendatuko du, eta deliberazioetan parte hartzen badu ere, ez du bozkatzeko eskubiderik izango.

21. Nazioarteko Epaimahaiak bere barne araudia ezarriko du, jaialdiko zuzendaritzarekin batera. Bere erabakia behin betikoa izango da. Honako sari hauek ezin izango dira eman gabe utzi:

SARI OFIZIALAK

JAIALDIKO SARI NAGUSIA - 7.000 €

EUSKAL ZINEMAREN SARI NAGUSIA - 6.000 €

ESPAINIAKO ZINEMAREN SARI NAGUSIA - 6.000 €

MIKELDIA-FIKZIOZKO FILM LABURRA - 5.000 €

MIKELDIA-DOKUMENTAL FILM LABURRA - 5.000 €

MIKELDIA-ANIMAZIOZKO FILM LABURRA - 5.000 €

BESTE SARIAK

PUBLIKOAREN EITB SARIA -3000 €

GIDOI ONENAREN SGAE FUNDAZIOARAEN SARIA-3000 €

ZINEKLUB FAS SARIA- 2000 €

22. Sarien diru kopurua erdibana banatuko dira film laburreko ekoizlearen eta zuzendariaren artean.

23 Zinebiren atalen barruan saritutako filmek nahitaez eta ezinbestean zehaztu beharko dute ZINEBI-Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdian lortutako aintzatespena jaialdiaren ondorengo poster, komunikazio, publizitate eta komunikazioko kopien kreditu-tituluetan, Sare Sozialetako komunikazioa eta gainerako euskarriak barne.

24. Sariak 2020an ordainduko dira, kasu bakoitzean egokitu litezkeen kenkari fiskalak aplikatuta. Bestalde, saridunak, zergapeko bikoitzari begira, bizilekua dueneko herrialdeko agintaritzak fiskalak igorritako egoitza fiskaleko agiri bat aurkeztu beharko du 2020ko abenduaren 15a baino lehen.

25. Araudi hau ingelesez euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da. Inolako zalantzarik sortuz gero, gaztelaniaz egindako bertsioak izango du balioa.

26. Film labor baten izena emanaz gero, araudi honetako baldintzak onartu beharko dira. Era berean jaialdiko zuzendaritzak interpretatu eta ezarriko du araudia. Horretarako, Nazioarteko Araudian xedatutakoa hartuko du kontuan.